

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko maiatzaren 12a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Barañain • Nafarroako Gazte Elkarteen astea bihar bukatuko da, aintziran egingen duten bestarekin
Udane Cabeza Zubillaga • «Igeri egitea da munduan gehien gustatzen zaidan gauza»

Nafarroaren oroimen



karlista



• EKA

Hezkuntza Departamentuak eta Karlista Alderdiak sinatutako hitzarmen bati esker, Nafarroak karlismoaren ehunka dokumentu, pieza eta zeinu berreskuratuko ditu, hurrengo urteetan Lizarran eraikiko den Karlismoaren Museo Historikoan biltzeko. Museoa Lizarrako Gobernadorearen Jauregian kokatuko da, baina, lehendabizi, Gobernuak 600 milioi pezeta inbertitu beharko ditu egoitza berritzeko eta egokitzeke.



Nafarroa ●

Gazteak elkartzeko astea

Bihar bukatuko da gazte asoziazionismoa bultzatzeko antolatutako astea

Gazte elkarteek urte osoan egiten duten lana erakutsi eta gazteei interesatzen zaizkien gaien inguruan hitz egitearren, Nafarroako Gazte Kontseiluak astebeteko jardunaldiak egin ditu.



Gazte Elkarteek Asteak makina bat gazte (eta horren gazte ez direnak) erakarri ditu ekitaldietara.

● CRISTINA BERIAIN

BIGARREN URTEA DA GAZTE Kontseiluak elkartearen astea antolatzen duena. Lehen egun bakarrek kontuan zuten. "Baina dena oso zentralizaturik gelditzen zen astialdiaren inguruan, eta elkarteek bertzelako gaiak ere jorratzen ditugu", azaldu du Kontseiluko lehendakari Andoni Isok. Horregatik antolatu dute astea, "astialdiarekin zerkusirik ez duen makina bat jarduera egiteko".

Astehenean hasi eta bihar bukatuko den astea, Kontseiluaren helburu bera duela: gazte asoziazionismoa bultzatzea, hots, gazteek elkartean parte hartzea edo daudenetatik bat ere gustatzen ez bazaie euren sortzea. «Astea bilgunea izatea nahi dugu elkarteek egiten duten lana aztertzeke, baita interesatzen zaizkigun kontuak eta jasaten ditugun arazoak aztertzeke ere», dio Isok.

Gazte Kontseiluko kide iza-

teko, Administrazioak ezartzen du bete beharreko arau gisa elkarte horrek gutienez 50 kide izatea. Gainera, Administrazioak ez ditu diruz laguntzen gazte elkarteek gazteak ez direnei zuzenduriko ekitaldiak. Gazte Kontseilurendako, Isoren hitzetan, hori ez da gazte asoziazionismoa bultzatzeko modu egokia, "naturaltasuna eta askatasuna mugatzen duelako". "Gazte elkarteak gara, baina gizarte baten barruan gaude", gaineratu du Isok. "Guri interesatzen zaiguna mugarik gabe landu nahi dugu, bai gazteendako bai gazteak ez diren bertze guzientzako".

Bihar, Barañaingo aintziran

Aste osoan makina bat ekitaldi izan da Nafarroako hainbat lekutan, eta Gazte Elkarteek Astea bihar bukatuko da, Barañaingo aintziran egun osoan egiten duten bestarekin. Dianak goizeko hamaiketan izanen dira. Horrekin batera, txokolate-jatea eta dantzari ttikien erakustaldia izanen dira. 11:45ean hasiko dira tailerak (malabareak, trikimak, txalaparta, ile-txirikordak, minigolfa...), eta 12:30ean dantza erakustaldia egonen da. Bazkaria 14:30ean izanen da: paella-jatea guzientzako. Goiz osoan

hainbat elkarteren informazio mahaia egonen dira, musika talde batek girotuta, eta Herri Mural mailako Munduko Errekorrerako lehenbiziko saialdia egiten da.

Arratsaldean, 16:30ean, Rocamador taldeak *El primerísimo centro de Centroamérica* antzezlan taularatuko du. Seietan, Adardunak eta Trikimako taldeek *Mano a mano* ikuskizun berria aurkeztuko dute, eta gaueko bederatzietan Detested eta Anorexia taldeek kontzertua emango dute Los Sauce ikastetxean.

→ Asier Azpilikueta

Dorrao

Elkartea berritzen ari dira

DORRAOKO ITURRALDE Elkarteak 1966an sortu zen, baina, urteekin, hasieran egoitza egokia zena gaur egun txiki geratu da elkartearen 107 bazkideendako. Bada urte eta erdi elkarte-kideak egoitza handitzearen ideia bueltaka dutena. Ez da, ordea, gauza xamurra halako jende kopuru handia ados jartzea eta horrek lanen hasiera atzeratu egin du. Guztia hobe bideratzeko asmoz batzorde bat sortu zuten eta honek egin du behar eta premien azterketa.

Iturralde elkarteak orain arte 60 metro koadroko solairu bat eta sotoa zituen. Hori bai, teilatua egoera txarrean zegoen. Apirilean hasitako lanekin jangela handitu, sukaldea tokiz aldatu, terraza txiki bat egin eta teilatua erabat berritu nahi dute. Iturralderen berriztatzeak 15 milioi pezetako kostua izanen du bertako bazkideendako. Hala ere, kontuan izan dituzte jubilatu eta gazteen diru arazoak. Hori dela-eta, bazkide hauek gutxiago ordainduko dute.

Lanak Dorraoko festetarako, abuztuaren 15erako, bukatuak izan nahi dituzte. Hori da batzordekideen asmoa. Guztia ez bada ere, zati garrantzitsuenak behintzat erabilgarri izan nahiko lituzkete. Elkartearen lanak bukatzen diren bitartean, herriko festetarako plaza ondoan duten taberna txikian sartu dira nola hala, horretarako barra eta jangela atondu dituztelarik.

→ Alfredo Alvaro Igoa

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Zenbat arrazoi egon daiteke negar egiteko? Ez hasi, badaezpada, zerrendarik egiten. Negarrez ari denarekin alferrik ari zara, ezin diozu esan "barregarri geratzen ari zara, xuka itzazu malko horiek". Izanen du zerbait. Negar egiteko orduan arrazoi klasikoak gailentzen dira oraindik ere: ereserkia jotzen ari direla eta malko bat, semea telebisioko kantari agertu dela eta bi malko, zure herriko futbol taldea bigarren mailara jaitsi dela eta hiru... Ez dago gaizki, zer arraio! Ziur nago negar egiten duena jakitun dela ezer gertatzen ez denean negar egiteak bizitza luzatzen diola.

Industriak ekarri ditu, berriz ere, aldaketak. Fabrikak hedatu zirenetik, burges ttipiak ugaritzen hasi zirenetik bestelako negarra nagusitu da. "Oso sentimental da", esaten zen beharginen sukaldeetan, "oso sentikorra da" egungo egongela argitsuetan.

Sentimentalak

Langile burgesa urrundu egin da negar klasiko-tik, esan liteke ez duela negar egiten, hunkitu egiten da, eta oin bat nostalgian duela malenkonia ezian murgiltzen da, hasperenean trebatu da. Jeep-etik jaitsi eta hasperen egiten du baserri eta errota eroriaren aurrean, hasperen trenbide zaharren ertzean, hasperen golde herdoilduaren ondoren... Gandu zuri batek lausotzen duen argazki bat irudikatzen du: etxe zuri eta gorri bat belardi muskerrez inguratua eta bera gantxilo egindako gortinen beste aldean, supazterrean.

Baserri berritu bat dute amets, baina Nafarroa izeneko cortijo hesitu batean bizi gara. Oroimen hobe bagenu buruz jakinen gure herrialdeko herri hustuen zerrenda. Ez genukeen ahanztiko noiz eta zergatik hustu ziren. Hobeki neurtu behar genuke zenbat iraunen duten galdu genuenak

eta daukagunak. Alabaina, horretarako beharrezkoa da auto edo bizikletatik jaitea eta baserria eta txaleta bereizten jakitea.

Buru hobe eta ondare urriagoa duten batzuek herri hustu batzuetara jo zuten orain dela urte batzuk. Kalitate gutxi izerdia bota zuten, nonbait, ez baitira inoiz herritar izatera iritsi eta hippie geratu dira. Oraindik orain Diputazioak, udalen kezka entzun ondoren, bizilagunak egozte eta etxeak eraistea erabaki du. Fini.


Pozaldiak ez du amaierarik. Basurdeak ugalduko dira, ehiztariak eremu zabalagoak izanen ditu, eta beste batzuek etxeko egongelan eskegia duten argazkiari begira jarraituko dute. "Hemendik dator gure familia", esaten diote bisitariari. Gero hasperen egiten dute, eta hasperenak korrokada ematen du.

Eltso ●

Erleen eztena ikasgai

Museo antzeko bat irekiko dute heldu den hilean erlezaintzari buruz

Bertzeak bertze, ezta egiteko prozesu guztia, erlauntz motak, erleen anatomia eta Euskal Herrian argizaiolak izandako garrantzia ikasteko aukera izanen da Eltson, ekainetik aitzin.



Isabel Telleria erlezainak atondu duen museoan erlearen eta eztiaren inguruko kontu eta tresna guztiak ikus eta jakin daitezke. ● CRISTINA BERIAIN

ISABEL TELLERIA ERLEZAIN eta al baitariak ia dena prest du *Erletoki* deituko duena irekitzeko. Ikastolako umeek, turistek eta bisitariek intsektu horren ezaugarri guztiak ezagutu ahalko dituzte Eltsoko etxe horretan, bisita gidatuen bidez.

Erleen historia uste baino konplexuagoa da. Euskal Herrian baserri gehienetan zegoen erlauntzen bat, eta erleak bertze abereak bezalakoak ziren. Begirunez ikusten zituzten, ezta eta argizaria ematen zituztelako. Azken hori argiaren sortzaile dugu, sendagai batzuen ezinbertze-ko osagai, eta beharrezkoa hilen kultuan. Isabel Telleriak kontatu duenez, «senideren bat hiltzen zelarik, erleei jakinarazten zitzairen. Kolpe batzuk ematen omen ziren er-

launtzetan, honako esaldiak erranez: «l'erliak, erliak! Gaur hil da etxeko nausiya»; «Emen-go nagusia edo etxeko andrea il data, ta aren animarentzako lan egiteko»; «Argitzarie itzatzue, berei argitzeko». Horrelako kontuak jakin daitezke erakusketaren hasieran.

Bigarren atalean, hainbat lekutan bildutako erlauntzak ikus daitezke, egurrezkoak edo kortxozkoak, eta, betiere, jatorriaren arabera sailkatuak. Ondoren, erauzteko eta iragazteko prozesuak ezagutzeko parada dago, baita egungo erlauntz motak ere.

Erleek naturan duten garrantzia ez da aldatu urteen joanean. Telleriak horixe azpimarratu du: «Landare pilo bat dago ugaltzeko eta bizirik irauteko intsektuen laguntza behar dutenak. Erleak polinizazio horren %75ean hartzen du parte. Beraz, arrunt inportantak dira basalandareetan eta laborantzan».

Datu horiei garrantzi handiagoa eman beharko litzaieke. «Normalean, 1.500 edo 2.000 pezeta ematen dituzte erlauntz bakoitzeko inguruari egiten dioten mesedearengatik, eta Nafarroan ia ezer ere

ez. Gaur egun, erlezainik ez balitz, ez litzateke erlerik izango eta mundu hau ez litzateke den bezalako izanen».

Bertzetik, Telleriak negua aldean ezkogintzan ere murgiltzeko asmoa du. Tresnak badiu dagoeneko. Beraz, argizariak, argizaiolak eta antze-koak egiteko prozesua ere ikusi ahalko da Erletokin. Bitartean, erakusketa ikusteko aukera dago, baita eztiarekin egindako produktuak erosteko ere: ezta, txokolata, marmelada, argizaria...

→ Txari Eleta



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

7.000 turista baino ez

TTIPI-TTAPA aldizkaria banatzen den eskualdeetako herrietan «7.000 bisitarik lo egiteko tokia dago». Horixe dio aldizkariak maiatzaren hasierako zenbakian. **TTIPI-TTAPA**-k azterketa sakona egin du Sara, Senpere, Baztan, Malerreka, Bortziriak eta Leitza aldeko turismoaren inguruan, iragan Aste Santuan leku horiek bisitatu zituztenen kopurua kontuan izanik. «Sara eta Senpereko herrietan dago eskaintzarik handiena. Bi horietan soilik Baztan, Malerreka, Bortziriak eta Leitza alde guzian haina turista hartzen ahal dituz-

te», dio aldizkariak. «Turistek gehien maite duten tokia, dudarik gabe, Larungo Gaina da, iaz 355.000 lagun goitu baitzen Tren Ttikian». Dena den, aldizkariak dioenez, ezin da, inolaz ere, Lapurdiko eta Nafarroako turismoaren arteko konparaketarik egin. «Lapurdin aunitzez lehenagotik hasi baitziren turismoari zukua ateratzen. Aunitzen ustez, gainera, turistek masifikazioak kalte handia egin dio herri horietako kultura eta bizimoduari». Nafarroa Garaiko iparraldean, ordea, turismoaren garapena mantsoagoa izan da **TTIPI-**

TTAPA-ren aburuz. Eta horrek «herriko bizimodua eta turismoa modu orekatuagoan ezkontzeko aukera eman du». Nora Eneerreaga Bertizko Partzuergoko kudeatzaileak aldizkarian dioenez, filosofia horrekin segitzeko asmoa dute. «Toki guzietan turista karga bat hartzen ahal dute», erran du. «Momentuz, Aste Santuan edo udan dena beteta dagoenean turismoak ez du deus txarrik suposatzen hemengo kultura eta giroarentzat. Baina, 3.500 izan beharrean, 8.000 plaza bagenitu nolabaiteko saturazioa litzateke».

Eroritako duro haiek

Eroritako duro haiek nire gogora etortzen dira, etortzen dira bai (ai ai aiaiai!), hilabetearen amaiera etortzen den modu bertsuan. Eta gaur Ducados paketea erosteko duro bat falta zaidanean, duro mixerable baten faltan nagoenean, zigarro bat erretzeko zein gogo bizia dudan konturatzen naiz, eta ezin. Duro batengatik! Krixto. Ez da posible. Duro batengatik sindromeak jota ibili beharra ere! Poltsiko guztiak miatzen ditut orduan. Praketan arakutzen dut, alkandoran, txupan; eta begizta batean sartzen naiz berriz ere praketan, alkandoran eta txupako dagoeneko arakaturako poltsikoetan miatzen baitut berriz ere. Berriz ere. Ez da posible. Eta orduan, zas! Eroritako eta jasotzeko utzi nituen, lurlean botata utzi nituen, duro haiez oroitzen naiz. Hara! Zein erraz uzten nituen lurlean, total duro bat!, edo bi!, zer egin daiteke bi duroekin? Lurlean uzten nituen, bai, gauza garrantzitsuagoak bainituen jokoan, eta neska ezezagunari esaten nion, esate baterako, «esan bezala, niri ere asko gustatzen zait *Ruper Ordorika*», edo horrelako zer edo zer, tabernan erdi moz-korturik esaten nion, hasierako memento horietan kontua ados egotea baita, eta gero gerokoak, eta duroak bezeroen zapatilen azpian desagertzen ziren, agur esan gabe galtzen ziren. «Patuak Ducados pakete bat erosteko derrigorrezkoak bilakatuko gaitu» esan gabe desagertzen ziren, betiko, nik «seguraski aurretik entzuna izango duzu, baina zure begiak ederrak baino ederragoak direla ohar-tzen naiz orain», edo horrelako zer edo zer, esaten nuen bitartean. Orduan hasten naiz (zer egin dezaket bestela?, ez naiz hasiko bada kale erdian duro mixerable baten eske!) kafetegi ondoan lurrera begira, besteen duroen bila espaloian (ez naiz ni duro txikiak jasotzeko uzten dituen bakarria izango ezta?). Orduan zigarroen mutur beltz eta itzaliak ikusten ditut, karamelu txuri bat ikusten dut (txinaurri beltzez gainezka dagoen karamelu bat), motor baten olio tantak ikusten ditut, eta letxuga batek dendatik etxerako bidean galdutako hostotxoak. Baina hemen dago durorik. Begi ederrak zituenak aspaldian desagertu zen bezala. Hemen ni neuz bakarrik nago. Hori bai, «mono» ikaragarriekin. ●

Karlismoaren oroinenaren itzulera

Lizarran egingo den museo historikoak mugimendu honen ehunka oroitzapen bilduko ditu

Nafarroak bere iragan karlista berreskuratuko du, azkenik. Karlistek urteetan egindako eskakizunari erantzuna emanez, iragan abenduan Nafarroako Gobernuak Lizarran mugimendu honi buruzko museo bat eraikitzeke proiektua onartu zuen. Orain dela bi aste, Alderdi Karlistarekin akordio batera heldu zen honek gordetzen dituen gauzen lagapena arautzeko.

ALDERDI KARLISTAK HIRUREHUN OBJEKTU baino gehiago emanen ditu erakusketa iraunkor honetarako, baina «oraindik ezin da jakin zenbat gauza lortuko diren, oroitzapen asko partikularren artean sakabanatuta daudelako», adierazi du Jose Angel Perez Nievasek, Alderdi Karlistaren buruak. «Jadanik pertsona eta elkarte askok eskaini dizkigute euren gauzak, baina izanen dira hor nonbait ezagutzen ez ditugun beste objektu asko eta asko». Lizarran jarriko diren pieza eta agiri asko Bilboko Museo Arkeologiko, Etnografiko eta Historikoan gorde izan dira orain arte.

Piezak aurkitzeaz eta biltzeaz batera, eginkizunik garrantzitsuena hauek berri- tzea izanen da. «Objektu askoren egoera ez da batere ona», azpimarratu du Perez Nievasek. «Baldintza okerretan egon dira urte- etan eta batzuk, denboraren poderioz, urratu egin dira erabat. Gure itzaropena da gehienak berri- tze ahal izatea, baina ez denak».

Galera honen errua Nafarroako erakun- deei egotzi die karlisten buruak: «Orain arte gauza hauen mantenimendurako ez dugu leku aproposik izan, ezta laguntza ekonomikorik ere, museo bat sortzeko aldarrikapena oso zaharra baldin bada ere».

Karlismoaren museoa Lizarrako Gober- nadorearen jauregian jarriko da, La Rua de Estella kalean, eta Gobernuak 600 milioi pezeta (24 milioi libera) inguru inbertitu beharko ditu eraikina berritzeko eta egokitzeko, urteak baitira eraikina erabat hondatuta dagoela. 1987tik Liza- rrrako Udala sarritan saiatu da berrikun- tza egiteko proiektu bat aurrera erama- ten. Iragan legegaldian eraikina erosi zuen 40 milioi pezetaren truke. Martxoan, erai- kina Nafarroako Gobernuari ematea hitzartu zuten, eta momentu horretatik aurrera Hezkuntza Departamentua da haren berrikuntzaren arduradun baka- rra.

→ Eva Aranguren

Eskakizun nagusia

Orokorrean, karlistak pozik daude, museoa urte askotako eskakizuna izan delako. «Egindako eskakizun nagusia da», dio Perez Nievasek, «preseski guk eskatutakoa ez baldin bada ere». Alderdiak nahiago zuen kudeaketa patronatu baten bidez egin balitz, eta egoitza, berriz, Iratxe- ko monaste- rioan jarri balute. «Batez ere etorkizunari begira, honek leku gehiago eta liburutegia baitu, eta proposamen hau helarazi genion Nafarroako Gobernuari», azaldu du Perez Nievasek. Baina karlisten proposamenak museoaren irekitzea atzeratuko luke, «Ira- txe- ko eraikina handiagoa denez, egokitze lanek gehiago iraunen lukete. Onartu den proiektu honekin, berriz, Gobernuaren aurreikuspenen arabera, museoa lauzpa- bost urte barru egonen da zabalik».

Historiaren berri izateko

Proiektua, zalantzarik gabe, berreskura- pen historiko garrantzitsua da, Perez Nie- vassen aburuz. «Nafarrentzat, eta karlisten- tzat batez ere, zentzu historiko sakona dauka museo honen sorrerak, Euskal Herriko gizarte- a garai batean izan zenaren isla izanen delako». Hori dela eta, karli- smoaren historia berreskuratzea «ezinbeste- koa zen». «Euskal Herriaren historia kar- listmoa kontuan hartu gabe egitea erokeria litzateke», esan du. Bere ustez, gainera, mugimendu honen historia gogoratzeak balio izanen du «berriro oker berdinetan ez erortzeko».

Gogoan izan behar da alderdi politiko honek, egun gero eta indar gutxiago badu ere, Euskal Herriaren historian paper garrantzitsua jokatu duela, batez ere XIX. mendean sortu zenetik eta XX. mendean erdialdea arte. Izan ere, karlistmoa, arazo dinastiko batengatik jaio bazen ere, autar- kiaren aldeko mugimendua izan zen, eta bere baitan erlijioa eta foruen defentsa batzen dituen ideologia osatu zuen.



Karlismoaren museoa Lizarrako Gobernadorearen jauregian jarriko dute (goian), La Rua de Estella kalean. Gobernuak 600 milioi pezeta inguru inbertitu beharko ditu eraikina berri- tze eta egokitzeko.

CRISTINA BERLAIN

Karlismoaren Museo Historikoan uniformeak, dominak eta banderak ikusi ahal izanen dira (ezkerrean). Karlisten itzaropena da horiek berritzatu ahal izatea.

EKA



Karlistek euren museoa paratzeko Iratxe- ko monasterioa nahiago zuten, leku gehiago eta liburutegia duelako. Dena den, oso luzerako joko luke Iratxe- n egokitze lanak egiteak, eta Gobernadorearen jauregian ezarri- tze gero, lauzpabost urte barru egonen da zabalik museoa

Jurramendiko gertakarien 24. urteurrena

IRAGAN MAIATZAREN 9AN IZAN ZEN JURRAMENDIKO GERTAKA- rien 24. urteurrena. Ultraeskuindar talde batzuk tiroka hasi ziren Jurramendiko ekitaldian eta, ondorioz, bi karli- ta hil ziren: Ricardo Garcia Pelle- jero eta Aniano Jimenez Santos. «Oso garrantzitsuak izan ez bagara ere, ez gara inoiz boterearen gustukoak izan», dio Perez Nievasek. Alderdiak oraindik biziki gogoratzen ditu orduan gertatuta-

koak. Izan ere, apirilaren bukaeran, Perez Nievasek bi hil- dakoen amentzako kalte- ordain eskaria aurkeztu zuen hura ere ekintza terrorista izan zela argudiatuturik. «Nafar- rako Gobernuak ofizialki ez digu erantzunik eman, baina esan digu kalte- ordain horiek ez zirela pentsatu haientzat. Dena den, espero dezagun azkeneko erantzuna bestelakoa izatea», azaldu du Perez Nievasek.

Historia, objektuen bitartez

Mota guztietako gauzak daude Alderdi Karlistak Lizarrako museoa hornitzeko emandakoen artean: gerrate karlistetan batailoiek eramandako banderak eta uniformeak, gerrate horiei buruz egindako koadroak, argazkiak eta hainbat dokumentu; alderdiaren historiaren adierazgarri balio- tsuak denak. Gauza kuriosoak aurkitu ahal izanen dira: adibidez, Karlos VII.ak Lakarreko gudan erabili zuen uni-

forma edota karlistek maila, funtzio eta momentu ezberdi- netan erabiltzen zituzten txapelak (zuria, gorria, urdina...), gerrikoak eta beste zenbait janzki. Badira, halaber, aginta- riek karlistei eginiko opariak; esate baterako, Erregeak ausardia saritzeko oparitutako nakarrezko haizemaileak, Margarita andrearen bitxiontzia, eta kondekorazio milita- rrak.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Landareen izenak 'Ze Berri?'-n

Pasa den apirilean karrikara atera zen *Ze Berri?* aldizkariaren 23. zenbakian landareen izenez hainbat kontu ekarri zigun Reyes Ilintxeta kazetariak.



Ilintxetak bere artikuluan Utergako Felipe Zabaltza nekazaria elkarrizketatzeaz gainera, Lakoizketaren eta Iri-garai Imazen lanen berri eman zigun. Ez da zalantzarik bi horien lanak bereziki interesgarriak direla nafarrondako; alabaina, Euskal Herrian mota honetako lan gehiago ere egin izan dira.

Althabe

Mauleko Jean Baptiste Althabek, Urdiñarbeko erretorea eta Azkuren kolaboratzaile fina zenak hain zuzen, *Ziberuko botanika edo lantharen jakitaitia* izenburuko idazkia plazaratu zuen Baionan, 1900ean. Lan trinko horretan Zuberoan kausi daitezkeen landareen berri zekarkigun Althabek, zuberezko hitzen ondoan frantsesezko ordainak paratuz, eta hainbatetan ere, azalpen terapeutikoak, izenburuan berean zioen jakitaitiaren bermagarri. Hona hemen sarrera gutxi batzuk horren erakusgarri: **Ahamenta.** *Menthe poivrée des jardins.* Lantharen baliusenatarik. Horren gozotik dira egiten pastilla borhithzak. Meliza bezala adelatürrik den tizanak azkartzen dü estomaka, dijestionia eginazten, ikharak eta barne aizik ohiltzen, begitharte eri izanak zoharditzen, errendeia eta inbeak iganazten, kolia eztitzen, haurrer xixariak ehaiten, ünñüder esnia igan erazten, ahamenta ostoz belara herstez büürüko mina anpletzen (...). **Asüna.** *Ortie.* Gora jüillia- ren tizanak ohiltzen dütü bulharretako eta gibel erraietako emur soberikinak. Üda ala negü, zaiñeki egin tizana orano hobe da. Üsü jaten dinak asün phünta egosirik, espinaka bezala prestatürrik, odol gastatütü libratütü da. Italianuek üsü jaten die asün zopa. Errematisma dinak seha edo freta bitza minak egün oroz asün fresk ahürreta bateki, zalhetütü da. (...). **Baratzuria.** *Ailj.* Beste ordüz haurrak aristi askaiten ziren ogi belar baratzuristatürrik jatez. Hatsa memento bat gaizto, bena sekula xixaririk. Büriak handi eta bethi gose. Orai aldiz üsü txar eta denak xixari.

Lehenago orano, saiñets phüntak zirenian hertz baratxüri ister bat zaphatüz, orai potikaideko paper phiperstatüz (...). **Elhorri beltza, basa ahana.** *Prunelier.* Liliaeki egin tizanak pürgatzen dü eztiki, estomaka azkartzen. Horen früta zohitiaeki egiten da aigardent hobere-netarik hirur departamentütan (...). **Perrezila.** *Persil.* Horeki egosi hura hun da begiko minen, poitrinaiden tizana eta amañuen ezniaren hausteko kanabeaki nahasirik.

Anpuero

Jose Maria Anpuero Jauregik (Durango, 1837), Orpumea anagramaz sinaturik, *Cartilla del agricultor bascongado para uso de nuestros labradores* izeneko lana aurkeztu zuen Durangoko euskal jaietarako, gutxira, 1886an, Bilbon argitara eman zelarik. Horren ondotik *Nekazariyen cartillachua Bizcaico eusqueran* atera zuen, Bilbon ere, 1909an. Bigarren horretan barazkiak ekoizteko aholkuak eta «llero urte barruan ein biar diran luguin biarrac» eskaini zizkigun. Barazkien zerrenda nahikoa luzanga dugu: «gariya, artua, lurzagar edo patatia, arbia edo nabua, sarbagorri edo erremolachia, irucocha, auznabedarra edo achicoriya, baba beltza, babia edo indibabia, idarra, aza, coliflora, urraza edo lechugia, piparra, tomatia, quipulia, beracatza, porrua, orburua edo alcachofia, arbigorriya edo zanahoriya, berengena, berriya, sarba, borrayac, malluquiya, ezparragua, errefoua edo errabanua, pepinua, meloia, arbichua edo maico arbiya...».

Bouda eta Daumgartl

Hanburgoko Karl Bouda eta D. Baumgartl ikerlariak landareen euskal izenei buruzko lanttoa laga ziguten. Mitxelena handiak alemanieratik gazteleratu eta

Salamancan 1955ean agertarazi zuena. *Nombres vascos de las plantas* ikerketa helburu filologikoekin egina da bereziki —euskararen eta

Kaukasoko hizkuntzen arteko harremanak frogatzeko asmoz hain zuzen—; alabaina, honako bederatzi atal hauetan gure intereseko ugari irakur ditzakegu: *Arboles, plantas, y animales; Hombre y paisaje; Comparaciones y propiedades; Hierbas y flores de origen románico; Préstamos y calcos; Plantas cultivadas; Onomatopéyas; Coincidencias vasco caucásicas.* Onomatopeiei buruzko atalean zenbait izen interesgarri badira: «txilin», *enredadera* edo *campanilla*; «xixtu», *avena silvestre*; «irri», *apio de risa*—izan ere, honakoa janean gero barre sardonikoa sorrazten baita—; «punpun», mitxoleta edo erdarazko *amapola*; «dolda», *siempreviva*; «pufa», *valeriana*; «zuzun», «burzuntza», «burtxintx», «busontza», «busunta», «buzunta» edo «bunfunt», *álamo temblón*.

Munita
Aramako erretorea zen Inozentzio Munita Arizmendik (Leaburu, 1874-Arama, 1958) *Gure mendi ta oianak: zuaizti berriak antolatu ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek* izenburuko liburua eman zuen argitara 1952an, Tolosako Mugerzarenan. *Pinu-abadia* ezizen esan-guratsua zuen Munitak zuhaitz mota ezberdinen deskribapena zein landaketa-zaintzetarako aholkuak eman zituen bere liburuan. Halako batean, Leitzako gaztainondo erraldoiari buruz aritu zen: «Leitzako errian dago. Bere gerria inguruz amabi metro bada. Agiri dan zulotik sartuta, lau gizon egoten dira batera, barruan. Zortzi gizon behar dira, alkari eskuak emanda, bera inguratzeko. Sinisten ez badezu, Leitzan Soroa baserri ondolan billatuko dezü».



etorri ahalean

Patziku Perurena

ooo



Errepus numerikoak

Bizio filosofikoaz: «Adimen batzuei zenbait gorputzi bezala gertatzen zaie, alegia, osasun sendo eta indartsukoak izanik, ariketa gogorra behar dutela, jenderik gehienarentzat lantsua eta astuna litzatekeen zereginean gozamina aurkitzen dutela. Iluna nekoso da adimarentzat, begiarentzat bezalaxe, baina ilunetik argia ateratzeko, horretarako behar den ahalegina bide, atsegingarri behar du derrior».

Ohituraren sekulako indar ezkutuz: «Halako eragina du ohiturak, non sendoena den lekuan, geure geurezko ezjakintza estali ezezik, bere burua ere gorde egiten duen; eta badirudi gainera egon ere ez dagoela, hain zuzen erraietaino sartua dagoelakotz».

Hitza nola dirutu zen: «Elederrak, mihizuriak, azken muturrera eramanak, leku eskasa uzten dio arrazoiari eta hausnarketari; alderantziz, fantasiara edo irritsera irristatzen da bete betean, entzuleen borondatea harrapatu eta adimena loxorrotuz. Hala, Tulio edo Demostenes batek nekez lortuko zuketena Erroma edo Atenasko entzulegoarekin, edozein kaputxinok, edozein maisu ibiltarik lor dezake giza-dirik gehienarekin, eta are errazago halako irritsi lohiak eta arruntak aipatuz».

Kazetaritzaren balioaz: «Ez da izanen injustiziarik hain erraz sortu eta hain arin zabal-tzen denik, batez ere baserri, auzo eta probintzi herrietan, ezkontzei buruzkoa baino. Aski da, bi gazte behin edo beste elkarrekin ikustea. Hain susmur ergelaren aurreneko informatzaile izanahiak hedatzen du kontua ahoz aho. Eta hain ohikoa dugu gizakiaren joera hau, non zentzudun inork ez dion arretarik ipintzen. Ba joera xeble haxe dugu, gizarteari grinarik sotile-naz mirarik harrigarrienak eta erlijiosoan kontatzerak eta sinestera eragiten diona».

Gustoko moralaz: «A priori,

arrazoituz gero, edozer gauzak dirudi gai beste edozer sortarazteko. Harrikozor batek itzal dezake, guk dakigunetik, eguzkia; edota gizaki baten nahiak eutsi planetei beren orbiten mugan. Esperientzia da soilik, kausaren eta efektuaren izatea eta mugak erakusten dizkiguna, eta objektu baten existentzia beste batetik inferitzeko gai egiten gaituena. Hauxe da arrazonamendu moralaren funtsa, giza ezagutzaren zatirik haundiena osatzen duena eta giza egintza eta portaera guztiaren sorburu dena. Morala eta Kritika ez dira propioki enteleguaren objektu, gustuarenak eta sentimenduarenak diren hainbatean. Edertasuna, dela morala dela naturala, propioki hauteman baino sentitu egiten da gehiago».

Honela bukatzen du Giza ezagutzari buruzko ikerketa: «Liburutegiak berriz ikustera joanen bagina, printzipio hauetaz konbentziturik, a zer nolako triskantza egingen genukeena. Hartu eskuan edozein ale, teologia edo metafisika eskolastikoari buruzkoa adsi-bidez, eta galdetu baino ez: Ba al dauka kantitateari eta kopuruari buruzko arrazoi-keta abstrakturen bat? Ez. Ba al dauka izatezko eta existentziako zerei buruzko arrazoi-keta esperimentalen bat? Ez. Sutara orduan: ez baitigu sofisteria eta irudikeria beste-rik ekarriko».

Kantek, Prolegomenoen sarreran, Humez ari dela: «Jakitea eta zientzia azkenetan daudenean, orduan eta ez lehenago, zentzu komunera jotzea, azken denbora hauetako asmakaria sotila besterik ez da; horrela, hitzontzirik ganorabakoena gauza baita bururik sakonenerekin nor baino nor lasai aritzeko eta bereari gogor eusteko. Ongi begiratu gero, txoromasaren juzkura jotzea besterik ez baita irtenbide hori. Txaloaldi horrekin gogaitu egiten da filosofoa, barrera-egile herrikoia aldiz, harropuxtu».

Ziria

• Motxorrosolo •

Hankapetik

AUKERA GALDUEN ZORROA MUKURU, AZPITIK DOANA indartuz doa. Alta, bestelako norabidea har dezake. Inoiz ere, bukatzen delarik, ez da denon biltokia izanen den pausalekurik. Antza denez, batzuek ez du muntarik.

Udane Cabeza Zubillaga

Igerilaria

«Igeri egitea da munduan gehien gustatzen zaidan gauza»



GARI GARAIALDE

soslaia

Udane Cabeza Zubillaga Leitzan jaio zen, duela hamahiru urte. Bost bete zituenean amak Leitzako igerilekuetan uda partean antolatzen diren ikastaroetako batean apuntatu zuen. Udane dioenez, kasualidadez hasi zen igeri egiten, baina egun ez luke deusengatik utziko kirol hori.

Hiru ahizpa dira, eta hiruretan Udaneri gustatzen zaio gehien igeri egitea. Dena den, besteek gustura ikusten dituzte txapelketa profesionalak telebistan edo Udanerenak igerilekuetan bertan.

Udane OHoko 6. mailan dago, eta ikasle lotsatia da. Nota onak ateratzea nahi du amak, bestela igeri egiten utziko ez diola mehatzatzen du. Baina alferrik, Udane ez baititu oso gustuko liburuak.

ziren eta asko poztu nintzen. Gainera, batzuek beti galdeztzen didate ea zer egin dudan txapelketetan, eta horrek poz handia ematen du.

■ **Baina badakigu Udane Cabeza oso neska lotsatia dela eta hasieran Tolosara joan zenean kostan egin zitzaiola lagun berriak egitea.**

Bai, hala da. Ni Tolosako Igarondo taldeko igerilariekin hasi nintzenean, beraien artean denek ezagutzen zuten elkar, eta batzuk oso lagunak ziren. Beraien artean zuten konfiantza lortzea kostatu zitzaidan, baina orain oso ongi moldatzen gara. Beraiek izan dira nire irakasleak. Maila hobetzeaz gain, teknika on bat lortzen lagundu didate, baita txapelketetan animoak eman ere. Horregatik, oso pozik eta ongi nago haien artean. Txikiena naiz eta, esaten duteenez, mimatu egiten naute.

n@n5:Lagunak egiteaz gain, bidaiak egiteko aukera ere izan duzue. Laster kontzentrazio batera zoazte.

Bai, Euskal Herri osoa edo gehiena ezagutzeko aukera izan dut igerilari naizenez geroztik. Orain, nire aurreneko bidaiak luzea egiten dut, astebetean Benidormera joan behar baitugu. Han ikastaro batzuk egiten ditugu, teknikari buruz mintzatuko zaizkigu eta gauza asko ikasteko aukera izanen dugu.

■ **Zein da duzun hurrengo helburua?**

Neguko probak bukatu eta udakoak prestatzen ari gara. Urtero Zarautz eta Getaria bitartean proba bat egiten dute, eta parte hartzen dugu, baina niri ez zait askorik gustatzen. Ikusiko dugu zer egiten dugun aurretik.

■ **Eta zein da zure bizitzako helburua?**

Igerilari profesionala izatea eta, hori posible ez bada, entrenatzailea izatea.

→ Eli Belauntzarán

Udane Cabeza Zubillaga igerilari leitzarra, Gipuzkoako Federazioaren hitzetan, Gipuzkoako 1999ko igerilari onena izan da. Hamahiru urteko neska honek zortzi urte daramatza gehien gustatzen zaiona egiten eta garaipen asko lortzen.

animatu ninduen Leitzako igerilekuetan ikastaro bat egitera. Orduan bost urte nituen, eta orduz geroztik zortzi urte daramatza Leitzako eta Tolosako igerilekuetan. Leitzako igerilekuak estali gabe daudela eta ezinezkoa egiten zitzaidan bertan entrenatzea eta horregatik hasi nintzen Tolosako

zait igeri egitea, eta Tolosaraino egunero etorri behar baldin badut, egunero etorriko naiz, igeri egitea baita munduan gehien gustatzen zaidan gauza. Gainera, oso ongi pasatzen dut taldekoekin. Hori bai, Leitzako lagunekin ezin naiz askorik atera, eta horrek bai ematen didala pena, baina beraiek

«Behin, eskolara joan nintzenean, pareta guztietan jarrita zituzten egunkarietan ateratako kroniken fotokopiak. Niri, hasieran lotsa eman zidan, baina gero denak ni zoriontzen hasi ziren, eta asko poztu nintzen»

Igarondo Elkartekoekin. Egundero bi orduz aritzen naiz, astelehenean ostiralean, eta, entrenatzaileak esan didanez, hemendik aurrera larunbatetan ere etorriko naiz, teknika asko hobetu behar dut eta.

■ **Entrenamendu gogorra eta sakrifizio handia eskatzen dizu kirol honek.**

Bai, baina asko gustatzen

ulertzen dute eta, gainera, oso ongi portatzen dira nirekin.

■ **Jakin dugunez, eskolako lagunak ustekabe galanta eman zituzten iaz.**

Bai, eskolara joan nintzen eta ordurako jarrita zituzten pareta guztietan egunkarietan ateratako kroniken fotokopiak. Niri, hasieran lotsa eman zidan, baina gero denak ni zoriontzen hasi

Bai, Gipuzkoako igerilari osatuenaren saria oso berezia da niretzat. Aurten nahiko denboraldi ona egin dut, eta Euskadiko Txapelketan crawl estiloan, 800 metroetan, bigarren postuan sailkatu nintzen, eta 400 metroetan, berriz, hirugarrena. Gipuzkoako Txapelketan ere hartu nuen parte, eta estilo horretan bigarrena izan nintzen 200, 400 eta 800 metroetan.

■ **Emaitza onak lortu dituzu urte gutxitan Gipuzkoako aldean. Baina Nafarroan hasi zinen.**

Bai, kasualidadez hasi nintzen, gainera. Gure amak

UDANE TOLOSAKO IGARONDO IGERIKETA ELKARTEKO igerilekuetan entrenatzen da. Orain dela gutxi eman diote bere bizitzako saririk garrantzitsuenak: igerilari onenaren izendapena.

■ **Zer egin behar da Gipuzkoako 1999ko igerilari onena izateko?**

Ez dakit. Niri esan didate erregularrena naizela, eta sari hori eman didate, baina badakit teknikan asko hobetu behar dudala eta egunero asko entrenatu behar dudala.

■ **Orain arte lortu duzun saririk garrantzitsuenak al da hau?**



Nafar Kronika

Pello Goñi

Bakartasuna

Otsagiko Boboa kale kanto batean eserita dago, goibel, begiak aurrerantz zuzendurik baina inora begira gabe. «Taldekideak aurkitu nahi ditut, Lagundu, arren», dio zangoetatik hurbil daukan kartelak. Jende aunitz pasatzen da aldamenetik, alde batera eta bestera, baina boboa bakar bakarrik sentitzen da. Kea besterik ez du ikusten, orain egun batzuetatik honata hirian barrena hedatu den ke iluna. Hilbeteko gau batean, ihauteriak ospatzen ari zirela, bolanteak desagertu ziren arrastorik utzi gabe. Batzarrean bildurik, herriko auzotarrek erabaki zuten norbait igorri behar zutela haien bila. Horrela, bada, Boboa goizalde hotz batean abiatu eta, gau eta egun hainbat herrian zehar galdezka ibili ondoren, hirira iritsi zen festako arropak franko urraturik. «Barkatu, jauna, Otsagiko boboa nauzu, ikusi al dituzu bolanteak?», galdetu zion traje dotorea zeraman gizon bati. Baina erantzunik ez, galdera aditu izan ez balu bezala egin eta urratsak areagotu zituen. Alabainan, Boboak ez zuen etsi eta galdera bera hamaika aldiz egin zuen: sudur puntan urrezko eraztun bat zeraman gazte arraro bati; zirika zegoen bikote bati; munduaren akabera zetorrela iragartzen ari zen halako bati; biboteak lurre-raino zeramazkien agure mehar bati; zaldi gainean zihoan polizia bati; hiriko alkatesari; apezpikuari; Ongizateko buruari; izkinako putari; oposatzaile talde bati; sindikatuko idazkari nagusiari... Baina erantzunik ez. Orain, jadanik nekaturik, kalean jarri eta arestian aipatu kartela paratu du: «Taldekideak aurkitu nahi ditut, lagundu arren».

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Zangoza:** Pop-Rock I. Lehiaketa gaur hasiko da. Nahikoa Da taldea Espejo tabernan izanen da, 21:30ean; A Quemarrropa Diagonal tabernan, 23:00etan, eta Sundown 2 Caballos tabernan, 24:00etan.
- **Bera:** Bihar, Donostiako Zurriolako eta Berako Musika Eskoletako ikasleen arteko emanaldia. Arratsaldeko 19:00etan bi ikastetxeetako ikasleek kontzertua emanen dute elkarrekin Berako Kultur Etxean.
- **Atarrabia:** Ostegunean, Peio Salaberriak euskal kantak eskainiko ditu Ostatu tabernan, 20:00etan.

BERTSOLARIAK

- **Antsoain:** Gaur, 22:30ean, bertso afaria izanen da Oihane Enbeita eta Jexux Mari Irazurekin, Gazte Berriak elkartean.

ANTZERKIA

- **Mutilagoiti:** Asteazkenean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoez *Plisti Plasta* haurrentzako ikuskizuna taularatuko dute Kultur Etxeko auditoriumean, 17:00etan eta 19:00etan.
- **Iruñea:** Ostegunean, Koldo Amestoi ipuin kontalariaren *Maribil* lana izanen da Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:30ean.

DANTZA

- **Zangoza:** Tempomobile dantza garaikideko taldeak *A way* lana eskainiko du gaur Karmengo auditorioan, 20:00etan.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** Gaur, CNT sindikatuko antolatu duen Aste Anarkistaren barnean, Abiadura Handiko Trenaren aurkako taldekoek horren gainean hitz egingen dute Sanduzelaiko auzo elkarte- an, 20:00etan.
- **Iruztzun:** Gaur, Ingurugiroari Buruzko X. Jardunaldien barnean, Fernando Plak *Nafarroako Iparaldeko muga* diapositiba emanaldia eskainiko du Kultur Etxean, 20:00etan.
- **Bera:** I. Asteartean, Mendi

Astearen barnean, *Pirinioetako zeharkaldia, neguan eta udan* diapositiba emanaldia eskainiko du Jose Mari Arbelaizek Kultur Etxean, 20:00etan. Ostegunarekin, ordu eta leku berean, Felipe Uriarteren *Alegiazko herrialde bat* diapositiba emanaldia izanen da.

IKASTAROAK

- **Noain:** Euskal Herriari buruzko 12 orduko ikastaroa antolatu dute Gau-Eskolak eta Kultur Patronatuak. Ikastaroa IPESek gidatuko du, eta gaur hasiko

da, 20:30ean, Kultur Etxean.

BESTELAKOAK

- **Antsoain:** Egunotan Euskal Jaiak ospatzen ari dira herrian. Hori dela eta, bihar goizean, 11:00etatik aurrera, txokolatada; antzerkia, Hankagorri taldearekin; herri kirolak, eta txistorrada izanen da Lapurbide parkean. Igandean, berriz, esku-langintza erakusketa eta salmenta izanen da goizean Lapurbide parkean, eta arratsaldeko seietan Gozategi taldeak kontzertua eskainiko du Udal Kiroldegian.

CRISTINA BERTAIN



Zain

Zain gaude, bai. Goiko pisura heltzeko maila bakarra falta zaigu, ekainaren 6koa, eta jadanik kartela aukeratu eta tonbola paratu digute. Zezenak ez gaitu harrapatuko. Mendeetako espe-rirentziak itxaronaldi lasaiak dakartzkigu. Valladoliden ez dago entzierrorik, baina zezenak ez zuen Enrique De Antonio harrapatu. Bera izan da kartel lehiaketako irabazlea. Felix Weinold alemaniarren zezen parentesi-adardunak ez du De Antonioren mutila hartuko. Zain dagoenak irabazi baitu dagoeneko. Orain zain dagoen bakarra funtzionarioa da, Weinolden kartelari eusten diona. Oporretako parentesiaren zain ote dago?